

» DISKOA

Eskemak dotoreziaz apurtzen



Iker Barandiaran
@IkerBarandiara

SCB 2011 inguruan sortu zen Gasteizen, luzaroan Obligaciones taldea gidatu zuen Pela-ren ekimenez. Inguruan batu ditu Obligacioneseko gitarra jotzaile Anti, bluesean luzaroan aritutako Penike baxu jotzailea, Joseba B. Lenoir gitarra jotzaile handia eta David bateria jotzaile eskarmentuduna. Ordura arteko punk-rock eta rock-and-roll izerditsutik harago jo nahi zuten. Kantuak idazten hastearekin bat, *Gasteiz dirt capital* bilduman parte hartu eta entzuleoi pilulak eskaintzeko hautua hartu zuten single eran: *Angelines*, *Golden...* Taldekideak saltsa askotan daude (Marky Ramone, Willis Drummond, Tobacco Road...) eta taldea isilik izan da.

SCBren marka da bizitzaren gordintasunaren esentzia idazkera poetiko zein errealistez jantzita idaztea; eta oraingoan inoizko kantu politikoenak batu dituzte nazioarte globalizatuko miseria eta bidegabekeriei erreferentzia eginez. Kide gehienak rock izerditsutik datoz eta hori ezin da geneetatik ezabatu; gainera, harro dira gaztaroko -bertako- punkaz, baina horiei koordinada desberdinetako erritmo eta melodiak gehituta, emaitza ezohikoa da, aberatsa.

Solo tú singlea izateko jaio da: elegantea, itsaskorra, sugerentea, rock argentinarra gogora dakarrena. *Pastillas de jabón envueltas en toallas* jostariagoa da, erritmoak apurtu eta jazzera hurbilduz. *Fuego* Martha & The Vandellas-en berrirakurketa da, eta hondartzak, neska koroak eta glam-rocka ekarri dizkit gogora. *Quiero un rehén*-ek ere asko du erritmoak apurtzetik. *Nadie te ayudará* balada punk-roc-

Hay un plan trazado desde arriba que se llama...

SUMISION CITY BLUES

Autoekoizpena, 2016



keroa da, gazi-gozoa. *Moscas en la carnicería*-k bere egiten du Eskorbutok egin nahi lukeen opera-rock-aren esentzia. *Beirut city boogie* itzela da: punk-rock-and-rollaren urgentzia eta Eskorbutoren espiritua dauzka, ilegales taldeak hastapenean idatzi nahiko lukeen tankeran. *Insomnio* kantak Nick Cavekin amets gaiztoak izatera eraman gaitu. *La guerra* 60ko hamarkadatik edaten duen power-pop garage-roa da. *Esperándola y deseando que no venga* rhythm&blues jostaria. Eta, azkenik, *Obedece*-k hainbeste zor diogun Australiako rockari gorazarre egiten dio. ■

Sumision City
Blues taldea.

BUZO

